

1. ELKARRIZKETA

BEZEROA	Egun on!
DENDARIA	Baita zuri ere! Zer nahi duzu?
BEZEROA	Porruak, mesedez.
DENDARIA	Zenbat? Sorta bat?
BEZEROA	Bai, sorta bat jarri.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Bai, tipulak eta azenarioak.
DENDARIA	Zenbat tipula?
BEZEROA	Lau ale.
DENDARIA	Eta azenarioak?
BEZEROA	Kilo erdi bat.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Bai, kilo bat sagar, eta laranjak... bi kilo.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Ez, besterik ez.

2. ELKARRIZKETA

DENDARIA	Hurrengoa?
BEZEROA	Ni naiz.
DENDARIA	Kaixo!
BEZEROA	Egun on!
DENDARIA	Zer nahi duzu?
BEZEROA	Baserriko oilasko bat jarriko al didazu mesedez?
DENDARIA	Ez zait gelditzen, denak saldu ditut.
BEZEROA	Tira, ba, orduan, solomoa eramango dut
DENDARIA	Solomo freskoa ala ondua?
BEZEROA	Freskoa.
DENDARIA	Zenbat nahi duzu?
BEZEROA	Kilo eta erdi.
DENDARIA	Horrelaxe. Besterik?
BEZEROA	Bai, txuleta zer moduzkoa duzu?
DENDARIA	Oso ona eta samurra.
BEZEROA	Orduan, pare bat txuleta jarri.
DENDARIA	Parrillan egiteko nahi al duzu?
BEZEROA	Bai, lodiak moztu, mesedez.
DENDARIA	Hementxe duzu. Besterik?
BEZEROA	Ez, besterik ez.

3. ELKARRIZKETA

DENDARIA	Kaixo, zer nahi duzu?
BEZEROA	Ogi bat eta dozena bat madalena.
DENDARIA	Madalena integralak ala normalak?
BEZEROA	Integralak, mesedez.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Ez, eskerrik asko.

4. ELKARRIZKETA

DENDARIA	Zein da orain?
BEZEROA	Ni naiz.
DENDARIA	Arratsalde on!
BEZEROA	Kaixo!
DENDARIA	Zer jarriko dizut?
BEZEROA	Ez dakit... Sardinarik ba al duzu?
DENDARIA	Bai, fresko-freskoak gainera. Zenbat jarriko dizut?
BEZEROA	Kilo bat, mesedez.
DENDARIA	Ongi da, besterik?
BEZEROA	Bai, txitxarro handi bat.
DENDARIA	Hauxe?
BEZEROA	Bai, horixe bera.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Ez, besterik ez.
DENDARIA	Perrexilik nahi al duzu?
BEZEROA	Bai, pixka bat jarri. Eskerrik asko.